

27 zenbakia  
2018ko abendua

**bai**

Bai Euskarari  
Elkartearen aldizkaria

---

**PREST  
AL ZAUDE  
2019AN  
PAUSO  
BERRIAK  
EMATEKO?**

---



Rober Gutiérrez  
[Zuzendaria]  
@robergutierrez

## Prest?

Urrats handiak egin ditugu 2018an zehar: 90 entitate batu dira Bai Euskarari-aren komunitatera; jarraipenerako aplikazioa osatu eta eguneratu da, baliabideen atala etengabe elikatu da, Bai Euskarari sarien ekitaldian Talleres Mitxelena, Fideslan, Jon Garaño eta Aitor Arregi saritu ditugu; Lansarean lan-atariaren aplikazioa aurkeztu dugu; enpresen eta profesionalen sareko *Enpresarean.eus* plataforma eguneratu dugu eta, horrekin batera, Enpresarean Telebista sortu da; gainera, digitalizazioa eta transformazioaren etorkizuneko erronken inguruko azoka antolatu dugu. Araban, bestalde, pilotajeak, Lazarraga Sariak eta "Arabian euskara lanabes" jardunaldia antolatu dugu bertako enpresekin...

Bistan denez, Bai Euskarari Elkartearen ekarpen ugari egiten ari da urte hauetako ibilbidean. Bai Euskarari, ziurtagiri bat baino askoz gehiago da. Gero eta eragin eta arrakasta handiagoa lortzen ari diren proiektuak, tresnak eta baliabideak lantzen, sortzen eta egokitzen ari gara Euskal Herriko enpresen eta profesionalen eskura jartzeko.

Euskararen presentzia sustatzeko helburuarekin ari gara Euskal Herri osoan. Euskaraz balioa eransten ari gaitzaizkio eremu sozioekonomikoari. Euskaraldiaren ariketarekin esperimendu ahal izan dugun bezala, gure Lurraldearen eraldaketaz ari gara. Enpresetan hizkuntzak - eta horien artean euskara ere - egoki kudeatzea eraldaketa bat da, enpresarentzat eta baita transformazio-prozesu horietan parte hartzen duten pertsonentzat ere. Berrikuntza aberasgarria da. Beste hainbat berrikuntzarekin gertatzen den bezala, garapena ahalbidetuko duen jarrera aktiboa landu behar da. Euskara susta-

tzen duenak, berrikuntzaren, aniztasunaren, bizikidetzaren, kohesioaren eta gure komunitatearen garapenaren alde egiten baitu.

Gure ekarpena lagungarria izaten ari da alor sozioekonomikoaren espazioak euskaraz betetzeko. Lorpenak nabariak dira eta aurrera jarraitzeko adorea ematen digute. Bereziki nabarmendu behar dugu Bai Euskarari Ziurtagiria duten Euskal Herri osoko ia 1.400 enpresa, saltoki eta era guztietako entitate baino gehiago egiten ari diren lana, haien konpromisoa, erdua eta eragina. Aitortza esplizitoki egitea garrantzitsua da. Behar dute. Behar dugu. Bai Euskarari ziurtagiria duten entitate hauei aitortu, baloratu eta aintzat hartu behar zaie egiten ari diren lana, gure hornitzaileak kontratatzeko garaian, administrazioen deialdietan eta abarretan. Guztion artean, balioa eman behar diogu egiten ari garen lanari.

Baina ez gaitezen horrekin konformatu, birpentsatu behar baitugu zer egin eta nola eragin nahi dugun alor sozioekonomikoaren espazioetan euskarak leku handiagoa irabazteko. Aurrera begira, erronka handia dugu lan munduan, merkataritzan eta baita kontsumoan ere... Administrazioaren eta enpresa handien lidergoa eta eredugarritasuna baliatuta, Euskal Herri osoko era guztietako enpresetan euskara sustatzeko eta kudeatzeko, sentsibilizazioan eragin behar dugu, komunikazioa landuz, ereduak, baliabideak eta aukerak eskainiz, zubiak eraikiz - Hezikuntza eta enpresen artean, esate baterako -, metatutako esperientzia baliatuz, denok norabide berean, elkarlanean eta ilusioz. Ez da erronka makala...

Prest al zaude 2019an pauso berriak emateko?

Lazarraga Sariak 03

Izar Mendiguren.  
Aiaraldea Kooperatiba Elkarte

Jon Markinez.  
Trobiñu Sagardotegia

Nortxu Núñez.  
Baiona Hertz Klinika

Pello Garmendia.  
Gamarrako Ostalaritza Eskola

Paul Urkijo.  
Errementari filmaren zuzendaria

#GasteizenBaiEuskarari  
mintzodromoa 08

Berrikuntzak 10

Begirada urteari 11

Lansarean

Enpresarean

Arabian, euskara lanabes

Bai Euskarari Sariak

Komunitatea gara

Argitaratzailea: Bai Euskarari Elkarte  
www.baieuskarari.eus

Martin Ugalde Kultur Parkea - 20140 Andoain  
t. 943592148

1 Arsenal Plaza - 64100 Baiona t. 0524336196  
Luzarra 10, 2-1 - 48014 Bilbo t. 673811048

Rogelia de Alvaro Elkartearen Etxea A.1.1.  
Panama, z/g - 01012, Gasteiz t. 945215196

Martzelo Zelaia, 75 U3 eraikina, 13. bulegoa  
31014 Iruñea t. 673811048

Zuzendaria: Rober Gutiérrez

Kudeaketa eta erredakzio-taldea:  
Bai Euskarari Elkarte eta Arteman Komunikazioa.

Diseinua eta maketazioa: dalvez

Argazkiak:  
Bai Euskarari Elkarte, Arteman Komunikazioa  
eta Mirian Biteri (ALEA).

Inprimatzailea: Leitzaran

Banaketa: Bai Euskarari Elkarte

Lege gordailua: SS-497-2010

[baieuskarari.eus](http://baieuskarari.eus)





**Aiaraldea Kooperatiba Elkarteak, Trebiñu Sagardotegiak, Baiona Hortz Klinikak, Gamarrako Ostalaritza Eskolak eta Paul Urkijok jaso dituzte 2018ko Lazarraga Sariak, Arabako alor sozioekonomikoan euskararen alde egindako lanaren errekonozimendu gisa.**

## Arabian euskaraz eredugarriak diren entitateei aitortza

Azaroaren 15ean Gasteizko Artium museoan ospaturiko sari banaketan Arabako enpresa, administrazio eta elkarte askoren ordezkariak izan ziren, antolatzaileak diren Arabako Foru Aldundiarekin eta Bai Euskarari Elkartearen ondoan, eta Lanabeseko talde eragilearekin batera. Nabarmena izan zen Arabako Batzar Nagusietako eta Gasteizko Udaleko ordezkariak zabala eta talde politiko ezberdinen parte-hartzea: EAJ, EH Bildu, Podemos - Ahal Dugu eta PSE-EEren presentziarekin; bai eta Lurralde Historikoaren enpresa edo kulturaren alorretako ordezkariak, besteak beste.

Anakoz Amenabar eta Edurne Begiristain kazetariak gidatu zuten ekitaldia, La Pulga taldeko gitarrak eta dantzaren erritmoak lagundurik. Elkartasuna eta poza izan ziren nagusi ekitaldian, batez ere, protagonisten artean.

### Saridunak

Aurtengo bost irabazleentzat ustekabe atsegina izan zen saria jasotzea eta eskertu zuten, aurrera begira euskaraz lan egiten segituko dutela adieraziz,

tinko eta emandako pausoez harro.

Lehenengo saria **Aiaraldea Kooperatiba Elkartearentzat** izan zen; aurkezleen hitzetan, "Komunitateari plaza komunikatibo ireki bat eskaintzen" diotelako, baina "komunikabide bat baino gehiago osatzen dutelako. Herritarrei eta kolektibitateari eragiten dieten esparru guztietan euskaraz egituraturiko diren proiektuak sustatzera bideraturiko kooperatibaren gidari dira". Gainera, azpimarratzekoa da 2010etik Bai Euskarari Ziurtagiria dutela, "Zerbitzua eta Lana euskaraz" maila.

Bigarren saria **Trebiñu Sagardotegiak** jaso zuen. Arabako txotx garaia ospatzen duten bezala, Lazarraga Saria ere ospatzea dagokiela nabarmendu zuten aurkezleek, "Arabian euskaraz topa egiteagatik". Gainera, esan beharra dago, Bai Euskarari Ziurtagiriaren "Bidean" maila dutela eta ingurukoentzat erreferente bilakatu direla.

Hurrengo sariduna irribarre osasuntsu batekin aurkeztu zuten: **Baiona Hortz Klinika**. "Odontologiako zerbitzu integrala eskaintzen dute; osasuna, materialen kalitatea eta zehaztasun zientifikoa bermatzen dute, konfian-

tzatik eta, nola ez, euskaraz". Klinikak ere, aurrekoak bezala, Bai Euskarari "Bidean" ziurtagiria du.

Laugarren saridunak zapore ezin hobea utzi zion ekitaldiari. Gastronomian, ogigintzan eta gozogintzan eskarmentu handia duen **Gamarrako Ostalaritza Eskolak** jaso zuen aitortza. Epaimahaiak nabarmendu zuen bezala, "profesionalei begira lan egiten dute, etorkizuneko goi mailako ostalarientzat. Arreta, hobekuntza, kalitatea, berrikuntza eta lan mundurako prestatuntza dira haien balioetako batzuk, euskaratik eta euskaraz eskaintzen dituztenak". Arabako ostalaritzaren etorkizuna euskaraz izan dadin lan egiteagatik jaso zuten saria.

Azken aitortza berezia izan zen, umorez eta terrorez jantzita etorri baitzen Lazarraga Sarien edizio honetako bosgarren protagonista: **Paul Urkijo**. *Errementari* filmaren zuzendariak zinemaren industrian, lanean, bizitzan... euskaraz bide hoberenetik zuzentzeagatik jaso zuen saria.

Bideo-laburpena





## Izar Mendiguren. Aiaraldea Kooperatiba Elkarte

*“Euskara gure proiektuaren ildo bat ez ezik, komunikatzeko lanabesa ere bada”*

**Aiaraldea Kooperatiba Elkarteko kide da Izar Mendiguren. Gainera, Aiaraldea.eus atari digitaleko kazetaria ere bada. Ez zuten espero Lazarraga Saria jasotzea, baina pozik hartu dute aitortza. Bai Euskarari ‘Zerbitzua eta Lana euskaraz’ ziurtagiria du Aiaraldeak.**

### Zer suposatzen du sari honek zuentzat?

Lazarraga sari hau kooperatibarentzat eta euskararen komunitatearentzat ere bada. Euskararen herria sartzeko egiten diren ekimen guztiei egindako aitortza da.

### Lan-ildo ezberdinak dituzue kooperatiban. Zeintzuk dira oinarri horiek eta nola uztartzen duzue euskara horietan?

Komunitatea euskaraz saretzea helburu izanik, Aiaraldea 2015-2020 gogoa estrategia berririk egitasmoaren bilakaera, helburuak eta aurrera begirako erronkak zehaztu genituen bazkide eta proiektuko boluntarioen artean. Hala, fase honetan komunitateari begira, sei lan-ildo jorrazteko beharra ikusi genuen: euskararen normalizazioa, komunikazioa, hezkuntza, feminismoa, elikadura-burujabetza eta ekonomia sozial eraldatzailea. Gure balioetan oinarrituta, arlo bakoitzak bere plangintza darabil. Proiektuaren sorreratik egin dugu euskararen aldeko apustua, eremu erdaldunean bizi arren, gure hizkuntzari beharrezko hauspoa, espazioa eta garrantzia eskaintzeko. Euskara ez da guretzat proiektuaren ildo bat bakarrik, komunikatzeko lanabesa baizik. Ez dugu euskara bandera edo izartzat ikusten, espazioari zentzua eta izaera ematen dion elementu modura baizik. Euskara bezala, tokikoak, berritzaileak eta eraldatzaileak gara.

### Zein da euskararen presentzia Aiaraldean?

Zorionez, gero eta presentzia handiagoa du, hezkuntzatik, euskaltegietatik eta euskararen komunitatetik gero eta tresna gehiago eskaintzen direlako. Ohiturak aldatzen joan behar dira eta, horretarako, egitasmo oro da garrantzitsua.

### Proiektu berritzailea ere bada Aiaraldea kooperatiba. Nolako harrerak izan du herritarren artean?

Oso ona. Egun, 300 bazkide baino gehiagok osatzen dugu proiektua. 2010ean, ezinezkoa zen pentsatzea eremu erdaldun batean euskara ardatz duen proiektu batek horrelako hegemonia lortzea posible zenik: Hamabostekariaren 10.000 ale doan banatzea, Aiaraldeko I. Azoka Soziala antolatzea, Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak garatzen dituen proiektuak izatea, edo eta hezkuntza ildoak planteatutako mugimendu askeko udalekuak eskaintzea. Anbizio handiarekin jaiotzen elkarteak, eta, zorionez, 300 laguneko ekarpenari esker, hala jarraitzen du. Esaterako, oraintsu, feminismo lantaldeak mikro-matxismoen inguruko dokumentala aurkeztu du, edo hezkuntzako Arimen Gauaren dosierra eskoletan lantzeko...

### Euskararen erabilera eragiteaz gain, gizartearen ere eragin nahi du zuen proiektuak, ezta?

Bai. Bizitzeko Faktoria izan nahi dugu. Gure jardun oro euskaraz egitean, gizartearen eragiten ari gara. Horrez gain,



**“Euskara bezala, tokikoak, berritzaileak eta eraldatzaileak gara”**

2015ean egitasmoaren eta jendartearen diagnostikoa egin genuenean, behar batzuk identifikatu eta lehenetsi genituen. Horrenbestez, eraldaketarako urrats berriak zehaztu ziren. Horren adibide da komunikabidean zentratua zegoen proiektua izatetik, komunitatean oinarritutako egitasmoa izaterako jauzia. Faktoria izango da hurrengo kabia: Laudion pabilioi huts bat erosi dugu komunitateari eskaintzeko. Bertan kokatuko dira aurrerantzean -obrak egin ostean- elikadura burujabetzari erantzuteko ekonomatua, haurren espazioa, komunikabidea, lantokiak, ikuskizunetarako aretoa eta beste. Hori bai, eskualdea da gure lantokia, eta Aiaraldeko bederatzi herrietan jarduerak antolatzen eta jendea saretzen jarraituko dugu. Gure nondik norakoen berri [www.faktoria.eus](http://www.faktoria.eus) atarian topatuko duzue, baita orain arte egindako bideo ere.

Izar Mendiguren  
Bideo-elkarrizketa



## Jon Markinez. Trebiñu Sagardotegia

“Bezeroek eskertzen dute euskaraz egiten dugunean”

Sorpresaz hartu dute Lazarraga Saria Trebiñu Sagardotegiko arduradunek. Trebiñun geroz eta espazio gehiago ditu euskarak eta sagardotegia da horietako bat. Bai Euskarari Ziurtagiria dute, ‘Bidean’ maila.

### Zer sentitu duzue saria jasotzean?

Guretzat ustekabe polita izan da. Aitortza handia izan da proposatutakoen artean egotea eta gure sagardotegia saridunetako bat zela ikusi dugunean, sorpresaz harrapatu gaitu. Oso eskertuta eta pozik gaude.

### Nola ikusten duzue euskara Arabako ostalaritza sektorean?

Kasu bat da ostalaritzaren egoera Araban eta, gure kasuan, Trebiñukoa, aparteko kasu bat da. Bezeroak gure sagardotegira etortzen direnean harritzen dira askotan: Nolatan sagardotegi bat Trebiñun? Eta euskara entzuten dutenean, harridura handiagoa izaten da: Euskaraz, sagardotegian, Trebiñun? Zorionez, bezeroek gero eta normalago hartzen dute.

### Zer egiten duzue zuen sagardotegian euskara bultzatzeko?

Euskaldunak izanik, saiatzen gara lehen hitza euskaraz egiten eta bezero askok jarraitzen dute euskaraz. Horri esker, beste giro bat sortzen da. Bertso afariak egiten ditugu, mintzalagun taldeak etortzen dira, euskaltegiatiko ikasleak, Mirandako euskaltegitik... Sagardoaren aitzakiarekin, mingainari errazago eragiten zaio euskaraz.

Aurrera begira, euskara sustatzen segituko dugu, jendeak normalizat har dezan Trebiñun sagardotegia egotea, Trebiñun euskaraz egitea eta Trebiñun euskaraz bizi nahi duen jendea egotea.



“Sagardoaren aitzakiarekin mingainari errazago eragiten zaio euskaraz”

### Nola ikusten duzue euskararen egoera Arabako alde honetan? Esango zenukete hizkuntzarentzat eremuak sortzen ari direla?

Euskararen egoera ez da ona Trebiñun, baina badago euskaraz hitz egiten duen jendea eta ahalegina egiten ari dena aukera duenean erabiltzeko. Jende gaztea da eta Gasteizen D ereduan ikasitakoa. Argantzunen ikastola dagoenetik, bertatik ikasle dezente pasatu dira eta euskaldundu dira. Ikastolara joan ez direnak eta euskara aukeratzen dutenak

Gasteizko Adurtza eskolara joaten dira. Gutxisolo elkarte ere gogotik saiatzen da euskara sustatzen herri ezberdinetan (Korrika, Euskaraldia...).

### Uste duzue euskarak balio erantsia ematen diola zuen jatetxeari?

Zalantzarik gabe! Bezeroek eskertzen dute euskaraz egiten dugunean eta, batez ere, hasiera-hasieratik euskaraz egin dezaketela identifikatzen dutenean. Guk behintzat biziki eskertzen dugu beste jatetxe edo eta edozein lekutan gertatzen zaigunean. Gure ustez, bertako hizkuntza jakitea ez litzateke balio erantsi bat izan beharko, normaltasun osoz bizi beharko genukeen zerbait baizik; dena den, bertakoentzat arrotza zena, orain ohikoa da (agurrak, eskerrik ematea, etab.).

### Bukatzeko, nolakoa izango da 2019ko sagardoa?

Aurten urte oparoa izan da, inoiz baino sagar gehiago bildu dugu. 23.000 litro sagardo egin ditugu eta 700 litro sagar-zuku. Oso sagar sana eta kalitate handikoa izatea espero dugu. Sagardoa oso ona da, leuna, fruta zaporekoa, lasto kolorekoa eta edateko erraza.

Jon Markinez  
Bideo-elkarrizketa



## Nortxu Núñez.

### Baiona Hertz Klinika

Gasteizen dentista euskalduna nahi duenak Baiona Hertz Klinikari eska dezake ordua. Euskarazko zerbitzua eskaintzen duen bakarretakoa da Arabako hiriburuan, eta Lazarraga Saria jaso du aurten.

*“Daukan garrantzia eman behar zaio euskaraz artatua izateko aukerari”*

#### Zer sentitu duzu saria jasotzean?

Sorpresa, poza eta aurrera begirako itxaropena ere bai. Lanean saiatzen gara bezeroekin euskaraz egiten eta lankide euskaldunak aukeratzen. Badirudi aurrera egin dugula baina, era berean, esango nuke oraindik ere traba handiak daudela. Horregatik, badut traba horiek gainditzeko itxaropena.

#### Zer egiten duzue hertz klinikari euskaraz bultzatzeko?

Lehenik eta behin, lanean euskara erabiltzen dugu. Bai Euskarari Elkartek Gasteizen banatutako txapak janzten ditugu, bezeroek jakin dezaten gurekin euskaraz egin dezaketela. Eta bestetik hizkuntza paisaia ere zaintzen dugu; hertz klinika zabaldu genuenetik elebrietan ditugu kartel guztiak. Jendeari erakutsi nahi diogu gurean badagoela euskaraz aritzeko aukera.

#### Zein balio ematen dio hertz klinikari euskarak?

Nirea erronka pertsonala da, guztiz. Euskara da gure klinikaren balioetako

bat. Nortasunaren parte da eta garrantzi handia ematen diot euskaraz egiteari. Jakin badakit askok eskertzen dutela, baina, euskaraz gain, laneko beste arlo guztiak ere zaintzen ditugu.

#### Zaila al da profesional onak eta euskaldunak aurkitzea?

Osasunaren arloan aldagai asko hartu behar dira aintzat: profesionaltasuna, hurbiltasuna, kalitatezko materialak erabiltzea, erabiltzaileen erreferentzia onak izatea... Ez dakit zaila den profesional ona eta euskalduna aurkitzea, baina nire kasuan zerbait positiboa da euskara harreman komertzialetan entzutea. Konfiantza ematen dit. Euskarari daukan garrantzia eman behar zaio, baita euskaraz artatua izateko aukerari ere.

#### Dentistarenera joateari beldurra diote askok. Euskarak laguntzen du konfiantza ematen eta beldur hori uxatzen?

Nik baietz esango nuke. Zerbitzua euskaraz jasotzea, berme handia da. Eus-



**“Euskal giroak dentistarenean lasaitasuna ematen duela uste dut”**

karak lasaitasuna ematen du dentistarenean. Hala ere, bezero batzuentzat ez da nahikoa [barreak]!

#### Uste duzu euskaraz zerbitzua emateak balio erantsi bat ematen diola zuen negozioari?

Ez dakit zerbitzua euskaraz emateagatik aukeratzen duten gure pazienteek. Baina klinikari euskaraz egin dezaketela ikusten dutenean, ilusioa egiten die la uste dut. Eta ea langile guztiek euskaraz egiten duten galdetzen dute, harrিতuta. Gure sektorean, eta batez ere Gasteizen, ez da ohikoa zerbitzu elebiduna eskaintzea.

Nortxu Núñez  
Bideo-elkarrizketa





## Pello Garmendia. Gamarrako Ostalaritza Eskola

*“Heziketa zikloez gain, eskolako giroa ere nabarmen euskaldundu da”*

**Gamarrako Ostalaritza Eskolan lan handia egin dute azken urteotan heziketa zikloak euskaraz eskaintzeko.**



### Zer sentitu duzu saria jasotzean?

Poz handia, batez ere ikasle ohi bat ikusi dudanean sarituen artean. Ikasle hori ere saritu dute bere enpresak [Trobiñu Sagardotegia] euskarari egiten dion bultzadagatik eta poz handia eman dit horrek. Eta, pozik, batez ere, eskolako irakasleak egiten ari diren ekarpenagatik.

### Aurrera begira, zein proiektu duzue esku artean?

Ostalaritza eskolak 30 urte daramatza lanean. Hasieran prestakuntza guztia gaztelania hutsean zen, guztiek A

ereduan ikasten zuten, baina, pixkanaka, D eta B ereduak heziketa zikloak sortzen joan gara. Gaur egun, bi heziketa ziklo ditugu D ereduan eta hiru B ereduan. Eskolako giroa ere nabarmen euskaldundu da. Ikasleak enpresetara praktiketara joan behar direnean, saiatzen gara jatetxe edo hotel horiek euskara erabiltzen dutenak izan daitezen. Poliki-poliki ari gara urratsak ematen.

Ikastetxe integratua gara eta hasierako prestakuntzan euskara sartu da, baina horrez gain enplegurako prestakuntza ere ematen dugu eta mundu hori, Araban, erdalduna da oraindik. Poliki-poliki, denen laguntzarekin euskara sartu beharko da hor ere.

**Pello Garmendia**  
Bideo-elkarrizketa



## Paul Urkijo. Errementari filmaren zuzendaria

*“Istorioak eskatzen badu, beste edozein hizkuntzak bezalako balioa dauka euskarak”*

**Paul Urkijo zinema zuzendari gasteiztarrak jaso du Lazarraga Saria, zinemaren industrian ere euskarari lekua egiteagatik.**

### Hasieratik garbi zenuen Errementari filma euskaraz izan behar zela?

Logika hutsa izan da. Txikitan euskaraz irakurri nuen Patxi Errementariaren ipuina eta horrela izan behar zuen. Egia da proposamenak jaso genituela gaztelaniaz edo ingelesez egiteko, merkatu handiago batera ateratzeko aitzakiaz. Baina nire logikak, ez industriaren logikak, baizik eta bihotzarekin, euskaraz egitera bultzatu ninduen. Gero polita izan da ikustea euskaraz egin izanagatik arlo bereko gainontzeko pelikuletatik bereizten dela.

### Euskarak ba al du lekurik zinemaren industrian?

Dagoeneko erakutsi dugu horrela dela. Filma aretoetan ikusi da, jaialdietan egon da, sariak lortu ditu eta orain Netflixen dago. Mundu guztiko egongeletan dago eta Twitterreko iritziek diotenez, filma euskaraz ikusi behar dela eta oso berezia dela euskaraz izateagatik, hain zuzen. Gainera, Errementariaren ildokoa den beste istorio bat lantzen ari gara, euskaraz ere, oso tokiak eta euskal mitologiarekin harremana duena.



### Euskara bultzatzeko zer egin daiteke zinemagintzan?

Istorioak eskatzen badu beste edozein hizkuntzak bezalako balioa dauka eta, kasu batzuetan, balio handiagoa du euskaraz eginda. Gure kasuan, euskaraz izateak filmari berezitasuna ematen dio. Naturaltasunez hartu behar da. Gure hizkuntza da eta bizitzako arlo guztietan erabili behar da.

**Paul Urkijo**  
Bideo-elkarrizketa



# Euskaraz saiatu eta asmatu!

#GasteizenBaiEuskarari mintzodromoa ospatu dute Gasteizko gazteek

Gasteizko "11 ber bi festibala"-ren barruan ospatu zuten abenduaren 5ean gazte mintzodromoa Oihaneder Euskararen Etxean, hiriko Lanbide Heziketako, Batxilergoko eta IKako ikasleek. Euskaraz saiitzea merezi duela adierazi zuten parte-hartzaileek eta hizkuntza erabiltzeak bere fruituak ematen dituela frogatu zuen saioko gonbidatu bereziak, Aiora Mujikak, sare sozialetan @probatxoa bezala ezagutzen dugunak.

Bai Euskarari Elkarrekin antolatzen du topaketa, Gasteizko Udalaren, Arabako Foru Aldundiaren eta Berri-itzegunearen babesarekin, ikasleen arteko harremanak euskaraz sustatzeko eta bizitzako arlo ezberdinetan hizkuntzaren egoeraz eztabaidatzeko.

Hasteko, "Minutu bat Interneten, zenbat euskaraz?" gaia aurkeztu zitzaizen ikasleei, eguneroko aisia digitalaren inguruan hitz egiteko eta euskaraz hartzen duen lekuaz hausnartzeko. Eztabaida piztu aurretik, Youtubegintzan murgildutako @probatxoa-k bere burua aurkeztu zuen eta euskarazko bideoak eskaintzeko saiakera egitera animatu zituen gazteak; izan ere, berak zuzen-zuzenean asmatu zuen, bere lehenengo bideoak 85.500 bisita baino gehiago jaso zituela kontutan izanik. Gazteek interesarekin entzun zuten Mujikaren



bizipena eta gehiengoak partekatu zuen Youtuberraren iritzia, Interneten, kalean, eskolan edo-eta lanean ere, euskaren alde egiteak merezi duela eta saiakera egin behar dela, alegia.

Bigarren txandan, ingurumen digitala, lan mundura salto egin zuten gazteek, "Etorkizunerako lanbidea hautatu, lanerako hizkuntza aukeratu" gaiarekin. Aurrekoan bezala, jarra positiboa nabarmendu zen aretoan eta, oro har, ikasle guztiak alor profesionalerako jautzia euskaraz egitearen alde agertu ziren, gogotsu.

Ondoren, gaur egungo kontsumo ohitura digitalak partekatu zituzten ikasleek eta Interneteko *Google assistant*, *Siri* edo *Amazon* bezalako laguntzaile birtualen erabilerari erreparatu zioten, "Sarean euskal siri izango ba-

genu..." eztabaidagaia aurrean izanik.

Bukatzeke eta kontsumo ohiturei jarraituta, "Hala erosi, zera irabazi: #LehenHitzaEUS" gaia aurkeztu zitzaizen ikasleei, erosketan moten, kontuan harturiko irizpideen eta erabiltzen duten hizkuntzaren inguruan mintzatzeko.

Ekitaldia amaitzeko, azpimarratzekoa da parte-hartzaile guztiei Baskonia, D.Alaves eta Araskiren sarrerak banatu zitzaizkiela.

Gasteizen, Interneten, lanean edo kontsumo garaian, beraz, euskaraz irabazteko asko dutela baieztatu zuten ikasleek.

Bideo-laburpena



LAN  
sarean

Lansarean  
app berria!  
Euskarazko  
lan-ataria

Hemen eskuratu



Bai Euskarari Elkarrekin  
sustatutako proiektua

**bai**  
euskarari



## @PROBATXOA euskaraz

**#GasteizenBaiEuskarari** mintzodromoan **@Probatxoa**-ren parte-hartzea izan genuen, sare sozialetan fin-fin dabilena. **Aiora Mujikak** YouTubean izandako bizipen berezia partekatu zuen Gasteizko gazteekin eta euskararen alde egiteak fruituak ematen dituela erakutsi zuen. Berarekin izan ginen ibilbidea eta izandako sentsazioak gertutik ezagutzeko.

### Interneten, hasieratik euskaraz. Zergatik?

Egunerokoan bezala, Interneten ere euskaraz egiten dut. Euskaraz bizi naiz, lagunekin, lanean, kalean... beraz, sarean euskaraz ekitea da niretzat normalena. YouTuberako saltoa eman nuenean euskaraz egitea erabaki nuen, hutsune handi bat nabaritzen nuelako eta euskarazko bideoak faltan botatzen nituelako. Gainera, alor honetan hizkuntzaren presentzia txikia dagoenez, euskarak bereizi nau eta oihartzuna eman dit.

### Euskaraz egiteko ohiturarik ez duenari... zer?

Interneten euskaraz gehiegi ibiltzen ez den pertsona edo ausartzen ez dena probatzera eta saiatzera animatuko nuke, ea nola sentitzen den. Azken finean, ohiturak egiten sortzen dira, probatzen.

Gainera, euskaraz egitea kostatzen bazaio, YouTuberako bideoek euskara praktikatzeko aukera emango diote, modu berezi batean. Zu jartzen zara zure etxean kameraren aurrean, zuk grabatzen duzu guztia eta, ondoren, erabakitzen duzu zer moztu, zer gehitu edo zer errepikatu. Ariketa polita da.

### Zer eskaintzen dizute euskarazko edukiek?

Euskarak gertutasuna ematen dit, hizlariarekiko konfiantza. Adibidez, Madrildik gaztelaniaz bideoak egiten dituen batek ez dit kontaktuko nik Donostian bizi dezakedana edo Gasteizko batek Gasteizen sentitzen duena. Esperientzia horiek guztiak guk kontatu behar ditugu gure artean, eta euskaraz.

### Lehenengo hitza euskaraz?

Lehenengo hitza euskaraz egiteak besteak ere bigarren hitza euskaraz egitera eta euskarazko elkarrizketa bat sortzera eramantzen ditzake. Nire kasuan, nahiz eta lehenengo hitza gaztelaniaz egin, euskaraz erantzuten saiatzen naiz edo, behintzat, hitzen bat sartzen. Horrela, parean dudan pertsonak ulertzen du euskaraz badakidala eta euskarazko hitz horri heltzeko eta elkarrizketa euskaraz garatzeko gonbitea luzatzen diot.



### Nolakoa da zure publikoa?

Nire publikoa euskalduna da eta batzuek, komentarioen bidez, euskaraz ikasten ari direla adierazi didate; hori oso polita iruditzen zait. Euskararekin hasiberria den pertsona batek entzuteko eta praktikatzeko asko dauka hizkuntzarekin ohitu arte; eta ilusio handia egiten dit nire bideoek horretan lagundu dezaketela pentsatzeak.

### Zer esango zenieke gaur egungo gazteei?

Euskal Herriko gazteei euskaraz hitz egitera animatzeko esango nieke; eta YouTubearen kasuan, adibidez, zalantzan baldin badaude, probatzera bultzatuko nituzke. Azken finean, haiek erabakiko dute noiz hasi, jarraituko duten edo momenturen batean utziko duten. Norbanakoaren esku dagoen zerbait denez, saiatu, probatu eta ikusiko dugu zer ateratzen den hortik.

**GURE KULTURAREN  
KOLORE GUZTIAK**

**LEITZARAN**  
grafikak

Gudarien Hiribidea 29  
20140 Andoain (Gipuzkoa)  
Tf: 943 30 35 10  
[www.leitzaran.eus](http://www.leitzaran.eus)  
[grafikak@leitzaran.eus](mailto:grafikak@leitzaran.eus)

**Ezagutzen al dituzu ingurumen digitalean gauzaturiko azken berrikuntza nabarmenenak? Mastodon.eus eta Modela.eus. Lehenengoa, euskal komunitatearen adimena nabarmentzera datorren sare sozial libre eta deszentralizatua da, euskararen eta euskal komunitatearentzat sorturikoa. Bigarrena, adimen artifizialaren bidez euskaratik eta euskarara itzultzen duen sistema automatikoa da.**

## 'Mastodon.eus', mundura euskaraz salto egiteko

Azaroaren 21ean izan genuen Mastodon.eus-en berri, Mastodon sare sozialeko instantzia berria, euskaraz eta euskal komunitatetik euskal komunitatearentzat sortua. Erakunde, enpresa, kooperatiba eta norbanako ezberdinen arteko elkarlanaren emaitza da, euskarazko komunitatearen inguruan dauden eta sor daitezkeen bestelako instantziekin elkartzeko helburuarekin sorturikoa. PuntuEUS Fundazioa, Azkue Fundazioa, Dinahosting, iametza, Talaios eta Laborategia 2.0 dira ekimenean parte hartu duten eragileetako batzuk.

### Zentralizaziotik askatu

Mastodonek baditu abantaila nabarmenak gainontzeko sare sozialekin alderatuta, batez ere komunitate txikiez hitz egiten dugunean. Bi milioi erabiltzaile baino gehiago batzen dituen ataria software librean eraikia denez, guztiz deszentralizatua da eta, hori horrela izanik, datuen kudeaketa, pribatutasuna, erabilera-arauak eta hizkuntza talde bakoitzaren esku gelditzen dira.

Abantaila hauek are azpimarragarriagoak bihurtzen dira gainontzeko sare zentralizatuak azken aldian harturiko erabakiak gogorarazten baditugu: Twitterrek, esate baterako, euskarara kendu du bere interfaze berritik eta Googlek iragarkiak euskaraz jartzea debekatu du.



## Modela: Euskarazko itzultzaile automatiko adimenduna

Modela adimen artifizialaren bidez euskaratik eta euskarara itzultzen duen sistema automatiko bat da, Eusko Jaurlaritzak eta SPRIK kudeatutako ELKARTEK programaren bitartez finantzatu den ikerketa baten emaitza, erakunde hauen parte hartzearekin: ISEA, Ametzagaiña, Vicomtech, Elhuyar Fundazioa eta EHUKo IXA taldea.

Euskararen eta gaztelaniaren arteko itzulpen automatikoko sistamarik onena da MODELA, adimen artifizialeko teknika berritzaileenetan oinarritua: Sare Neuraletako Itzulpen Automatikoa (NMT, Neural Machine Translation).

Itzulpen automatikoan aurrerapen garrantzitsuak egiten ari dira munduan, baina erronka teknologiko handia da oraindik ere. Bide horretan, euskarak lortu du mundu eleaniztunean tokia egitea, eta jauzi kualitatibo handia ekarri du MODELAK. Izan ere, orain arteko itzulpen automatikoko sistemetan, emaitzen kalitatea mugatzen zuten euskararen morfologia aberatsak eta bestelako ezaugarriak; aldiz, sare neuraletan oinarritutako sistemetan, gainditu egin da muga hori, eta euskararen hizkuntza-teknologiak beste hizkuntzen pare jarri dira. Eta, orain, euskarako testuekin ere baliatzea lortu da.

Modelak lagunduko du erakundeetan euskararen idatzizko erabilera handitzen eta euskara normalizatzen, eta enpresek kalitateko tresna bat izango dute euskaraz komunikatzeko gai ez direnentzat, besteak beste. Halaber, lagungarri izango da hizkuntza-teknologiaren garapenerako eta aplikazio berriak sortzeko, hala nola laguntzaile birtualak, testuen analisia, etab. Aplikazio horiek eragin handia izango dute sektore hauetan, besteak beste: osasuna, administrazio publikoa, fabrikazio aurreratua eta ikus-entzunezkoak.

# Konfiantzan, euskarazko lan aukera: Lansarean

Pertsonak elikatzen dute Lansarean lan-ataria; ibilbide profesionala euskaraz egin nahi duten hautagai prestatuek eta aukera interesgarriak eskaintzen dituzten enpresetako profesionalak eranstean diote balioa plataformari.


Egunero argitaratzen dira lan-eskaintza berriak, askotarikoko sektore, profil eta egoeretara zuzendurikoak. Euskal Herriko 480 enpresa baino gehiagok parte hartzen dute atarian eta 4.800 eskaintza baino gehiago erregistratu dira. Txanponaren beste aldean hautagaiak daude; lan bila ari diren 3.770 pertsona zenbatu ditugu, haien profilak eta CV-ak osatu dituztenak, eta haien behar edo helburu profesionaletara egokituriko aukerak jasotzen ari direnak.

Enpresek hautagai aproposa topatzea eta hautagaiak ibilbide profesionala garatzeko aukera izatea da lan-atariaren helburua; baina, batez ere, euskaraz garatzeko aukera bermatzea da Lansareanen promesa, merkatuan dauden lan-atarietatik ezberdintzen duen balio erantsia.

Inguruko enpresen lan-eskaintzak jasotzeak gertutasuna ematen dio plataformari. Gertutasun horrek eta euskaraz izateak konfiantza ematen dio hautagaiari. Nabaria da, era berean, segurtasuna eta datuen pribatasuna bermatzen dituela atariak. Beraz, edozein enpresak edo hautagaik lasai eman dezake izena, hobekien egokitzen diren aukerak jasoko dituztela jakinda, modu eraginkorrean eta, garrantzitsuen dena, konfiantzan.

## Lansarean app

Hautagaia zein lana eskaintzen duen profesionala izan, lan eskaintzen kudeaketa erraza eta eraginkorra izateko diseinaturik dago aurten sorturiko aplikazioa. Sektore anitzeko lan-eskaintzak jasotzen ditu atariak, interesen arabera pertsonalizatu daitezkeenak; aplikazioak, gainera, jakinarazpenak programatzeko eta eskaintzak ordenatzeko aukera



ematen du; kudeatzeko sistema erraza dauka, eta hautagaiak eta enpresak harremanetan jartzeko mezularitza aukera eskaintzen du. Horretaz gain, Lansareaneko erabiltzaileei ibilbide profesionala euskaraz egiten laguntzeko helburuarekin, orientazio zerbitzua eskaini eta formazio-agendaren berri ematen du.

## Nola erabili Lansarean?

Lan-ataria arazorik gabe erabiltzeko bi gida sortu dira, bata webgunean oinarriturik eta bestea aplikazioan. Eskuliburuak [lansarean.eus](http://lansarean.eus) webgunearen bidez deskarga daitezke, hautagaiei eta enpresei zuzenduriko azalpen ulergarri eta pertsonalizatuekin.

Lansarean  
aurkezpen-bideoa







LARGE-SCALE CUSTOM MACHINING



**Neurri handiko mekanizazioa**

Eziago poligonoa, 21  
HERNANI  
T. 943 55 25 12 - 16  
T. 943 55 28 16  
info@talleresmitxelena.com  
[www.talleresmitxelena.com](http://www.talleresmitxelena.com)





## Lurraldearen eta pertsonen eraldaketari begira

**Alor sozioekonomikoan euskararen erabilera sustatzeko eta enpresei zein profesionali euskarazko aukerak eta baliabideak eskaintzeko lan egiten du Bai Euskarari Elkarteak, euskal komunitatearen ongizaterako, gure lurraldearen eta pertsonen garapenerako.**

Marko horretan kokatzen da Enpresarean proiektua, enpresen eta profesionalen sarea; "lan munduan euskaraz normaltasunez aritzeko sorturiko proiektu esperimentalak, enpresei eta profesionali haien egitasmoak ezagutarazteko bidea eskaintzen diena, solasaldirako, eztabaidatzeko eta elkarlana sustatzeko espazio bat partekatuzko aukera errazten diena, enpresen eta profesionalen interesekoak diren gaiak jorratu nahi dituen eta tresna eta bitarteko berriak lantzen eta sortzen lagundu nahi duena".

### Enpresarean Azoka 2018

Horrela aurkeztu zuen egitasmoa urriaren 25ean ospaturiko Enpresarean Azokaren laugarren edizioan Rober Gutiérrezek, Bai Euskarari Elkarteko zuzendariak. Pertsonak eta horien ongizatea izan ziren protagonistak profesionalen solasaldirako eta elkarlanerako bilgunean, digitalizazioa eta transformazioaren etorkizuneko erronkaren aurrean.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren, SPRI Taldearen, Hernaniko Udalaren, Laboral Kutxaren eta Orona Fundazioaren babesarekin, Orona Ideon elkartu ziren erronkez, kezkez eta aukeraz beteriko etorkizuna irudikatzeko. Bertan izan ziren eskarmentu handiko enpresen ordezkariak eta etorkizuneko ekintzaileak, administrazio ordezkariekin batera, etorkizun sozioekonomikoan elkar eragiteko asmoz.

### Pertsonak, ekonomia eta digitalizazioa, euskaraz

Ekitaldiak etorkizuna ulertzeko iritzi ezberdinak uztartu zituen, hiru bloketan banaturiko ekonomia eta teknologia arloko profesionalen hitzaldi eta solasaldiekin: "Ekonomia eta pertsonak. Euskal ekonomiaren eta gizartearen erronkak"; "Eraldaketa digitala, pertso-



nen eraldaketa?"; Nolakoa izango da lana etorkizunean? Lanaren automatizazioa eta etorkizuneko lanbideak.

Biharko hutsuneen eta kezken inguruko ikuspegi negatiboagoarekin batzuek, eta baikorragoarekin beste batzuek, parte-hartzaile guztiek egin zuten pertsonen eta ongizaterako eraldaketaren alde, baina, batez ere, berrikuntza hori euskaraz, elkarrekin, eragitearen alde.

Honakoak izan ziren aurtengo edizioko hitzaldi eta solasaldietan parte hartu zutenak: Mari Jose Aranguren (Orkestrako zuzendari nagusia), Gorka Julio (Talaios Kooperatiba), Imanol Esnaola (Gaindegiako koordinatzailea), Sebas Zurutuza (Gipuzkoako Foru Aldundiko Kudeaketa Estrategia zuzendari nagusia), Fermin Lazkano (IMHko Enpresentzako formazioa eta zerbitzuen arduraduna), Iker Barrena (Hispanista Labseko zuzendari exekutiboa), Irune Lasa (Berriako kazetaria), Ana Isabel Vitórica (IKANOS proiektuaren zuzendaria), Leire Colomo (AMPOko Berrikuntza eta garapen teknologikoaren zuzendaria), Santi Agirre-goikoa (ELAYko kontseilari ordezkaria), Arrate Olaiz (IBARMIAko Berrikuntza zuzendaria), Jurdan Arretxe (Noticias de Gipuzkoako kazetaria), Ibon Zugasti (LKS-PROSPEKTIKEReko zuzendari nagusia eta Millenium Proiektuaren ardu-

raduna), Nuria Agirre (Laboral Kutxako Gizarte Kudeaketako zuzendaria), Rikar Lamadrid (Eusko Jaurlaritzako Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen zuzendaria), Iñigo Larrea (MONDRAGON Korporazioko Gestio Sozialaren arduraduna), Izarne Arrigain (EITBko Giza Baliabideetako zuzendaria), Anabel Arraiza aktorea eta Miryam Artola (Muxote Poto bat).

### Enpresarean Telebista

Urte hasieran, Bai Euskarari Elkarteak euskal enpresei eta profesionali zuzenduriko Enpresarean proiektuaren webgunea berritu zuen. Enpresarean TB da berrikuntza nabariena. Bertan, Enpresarean proiektuaren markoan garaturiko ekitaldi guztiak (azoka, foro, jardunaldi, hitzaldi, ikastaro...) daude ikusgai. Gainera, datozen ekitaldien berri ematen du, agendan jaso eta zuzenean izena emateko aukera izateko. Ekitaldien formatuari dagokionez, pauso bat aurrera eman eta, ikastaro, hitzaldi eta foro digitalak ere eskaintzen hasi dira. Nahi duenak zuzen-zuzenean ikusi ahal izango du eta, bestela, ondoren ere, saioa Enpresarean TB ataletik zabalduko da. Helburua da euskal profesionalak eta enpresek, euskarazko eduki profesionalak nahieran izatea.

# Arabara euskaraz gehiago garelako

Arabako arlo sozioekonomikoan euskara sustatzeko lanean ari da Bai Euskarari Elkarteak, enpresa munduko eta administrazioko ordezkari ezberdinekin lankidetzan. Oro har, herrialde osoan daude indarrak jarrita, euskara lanabes gisa harturik, lurraldearen eraldaketan, ongizatean eta hobekuntzan eragiteko asmoz. 2018an egindako lanari erreparaturaz, azpimarragarriak dira Arabak euskara eta lana uztartzeko eman dituen urratsak, bi egitasmo nagusietan oinarritzen direlarik: "Lanabes, Arabara Euskara Lanean" eta Gasteizen martxan jarritako "Lehen hitzak balio handia du" kanpaina.



## Arabako enpresetan, euskara lanabes

Urte hau berezia izan da Arabako alor sozioekonomikoa euskalduntzeko elkarlanean diharduen Lanabes talde-eragilearentzat. Izan ere, 2015etik egindako ibilbidearen errepasoa egiteko eta etorkizuneko eronkak eta ilusioak nabarmentzeko "Arabara Euskara Lanabes" izeneko jardunaldia egin zen, elkarte, enpresa eta administrazioko 50 lagun ingururekin.

Saioa ekainaren 4an ospatu zen Arabako Industria eta Merkataritza Ganbaran eta eguneko protagonistak dinamikako parte-hartzaileak izan ziren, Arabako etorkizuna irudikatu zuten profesionalak. Ideia guztiak mapa batean jaso ziren eta datozen urteotako fokoa zein zen argitu zen: Arabako entitate eta enpresetan euskara sustatzeko sentsibilizazioan eragin eta ereduak, laguntza, baliabideak eta aukerak eskaini, elkarlanean eta ilusioz.

Bai Euskarari Elkarteak Lanabes egitasmoan dituen bidelagunei eskerrak eman nahi dizkie, egindakoengatik eta elkarrekin lortzeko dutenarengatik: Arabako Foru Aldundia, SEA, Arabako Merkataritza eta Industria Ganbara, Aenkomer, Oreka IT, Electra Vitoria eta Laneki.

## Gasteizen lehen hitza euskaraz egiteko

2018an Gasteizen euskarazko lehen hitzak presentzia handia hartu du, #LehenHitzaEUS kanpainarekin. Gasteizko euskararen mapa osatzea izan da helburua, bertako establezimenduei eta kontsumitzaileei bide berriak irekitzen laguntzeko, euskara baliatu beharreko aldagai gisa harturik. Gasteizko Udalarekin dagoen hitzarmenari esker, Bai Euskarari Ziurtagiria lortu eta mapan gehitzeko prozesua eta metodologia erraza da; Elkarteak establezimendua ezagutzera hurbilduko da eta hizkuntza egoeraren azterketa egiten lagunduko dio. Ondoren, negoziotan euskara txertatzeko eta aurrerapausoak emateko helburuak zehaztuko dira eta Bai Euskarari Elkarteak baliabide eta aholkularitza eskainiko ditu. Aukera hau doan eskaini da 2018an zehar; 2019tik aurrera ere, dirulaguntzak egongo dira.



NEURTU ZURE ERAKUNDEAREN  
HIZKUNTZA EGOERA

**6 PAUSOTAN**

ZUK ZEUK, AZKAR ETA ERRAZ



BETE ZURE  
AUTO-DIAGNOSTIKOA



bai.euskarari.eus




Ziurtagiri bat baino askoz gehiago





baieuskarari.eus



Ziurtagiri bat baino askoz gehiago



## 2018ko Bai Euskarari Sariak

### Talleres Mitxelena, Fideslan, Jon Garaño eta Aitor Arregirentzat

Bai Euskarari Elkartek Talleres Mitxelena, Fideslan, Jon Garaño eta Aitor Arregi saritu zituen sorginkeriaz eta magiaz beteriko Bai Euskarari Sarien ekitaldian.

Bai Euskarari Ziurtagiriaren proiektuak hemezortzi urte bete berri dituen edizio honetan, administrazioen ordezkari zabala egon zen: Miren Dobaran, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea, Gipuzkoa-ko Hizkuntza Berdintasuneko zuzendaria den Garbiñe Mendizabal, Arabako Foru Aldundiko, Udalbiltzako eta Batzar Nagusietako ordezkari; horiekin batera, euskalgintzako komunitatea eta sektore ezberdinetako enpresak eta elkartek.

Ospakizun berezia izan zen, magikoa eta dibertigarria. Bederatzigarren edizio honetan, sormenari hegoak eman genizkion eta Zugarramurdiko leizetarra bidaiatu genuen bi emakume berezi ezagutzeko, euskarari argia eman zio-

ten eta komunitate guztiarekin batera euskararen normalizaziorako errituak egin zituzten sorginak. Poza, sorpresa eta ilusioa oso presente egon ziren.

Urtero bezala, hiru aitortza egin ziren: lehenengo Bai Euskarari Saria Fideslan aholkularitza enpresarentzat izan zen, "Zerbitzua eta lana euskaraz" maila duena. Bigarrena, Talleres Mitxelenak jaso zuen, industria arloko kooperatibak, Bai Euskarari Ziurtagiriaren "Zerbitzua euskaraz" mailarekin. Azkena, *Handia* pelikularen zuzendariak diren Jon Garañok eta Aitor Arregik jaso zuten, euskal kultura eta zinemaren industria etengabe hazteko lan egiteagatik.

#### Konpromisoa, eredia eta eragina

Rober Gutiérrezek, Bai Euskarari Elkarteko zuzendariak, nabarmendu nahi izan zuen denbora honetako "lorpenak

nabariak direla eta aurrera jarraitzeko adorea ematen digutela". "Euskal Herri osoko ia 1.400 enpresa, saltoki eta era guztietako entitate baino gehiago egiten ari diren lana, konpromisoa, eredia eta eragina" goraiatu zituen eta balioan jartzearen garrantzia azpimarratu zuen; Gutiérrezen hitzetan, "aitortza esplizitoki egitea garrantzitsua da. Behar dute. Behar dugu. Bai Euskarari ziurtagiria duten entitate hauei aitortu, baloratu eta aintzat hartu behar zaie egiten ari diren lana, gure hornitzaileak kontratatzeke garaian, administrazioen deialdietan eta abarretan. Guztion artean, balioa eman behar diogu egiten ari diren lanari".

Bideo-laburpena





# Komunitatea gara

Bai Euskarari Elkarateak euskara txertatzeko erraztasunak eskaini eta lorpenak aitortu nahi dizkie ziurtagiridunei



Zabala eta anitza da Bai Euskarari komunitatea; euskara erabiltzeko eta sustatzeko lanean ari diren Euskal Herri osoko enpresek, saltokiek eta era guztietako entitateek lortu baitute Bai Euskarari bereizgarria. Zehatzak izanda, 1.360 ziurtagiridunek osatzen dute gaur egun komunitatearen mapa, "Euskararen Bidean", "Zerbitzua euskaraz" eta "Zerbitzua eta lana euskaraz" mailekin. Batzuk hizkuntzaren integrazio prozesuan aurreraturik daude eta beste batzuek, aldiz, hasi berri dute abentura. Dena dela, guztiek argi dute Bai Euskarari Elkarate bidelagun izango dutela, erraztasunak, baliabideak eta proiektu berriak eskainiz eta entitate hauen urratsak aitortuz eta sarituz.

## Herriz herriko elkarlana

Bide honetan, tokian tokiko administrazioarekin elkar-eragina sustatzea behar-beharrezkoa da, indarrak biderkatzeko eta guztion ongizatearen alde egiteko. Hori kontutan izanik, Bai Euskarari Elkarateak urtero sinatzen ditu hi-

tzarmenak Euskal Herriko hainbat udal eta mankomunitaterekin ziurtagiridunen ibilbidean laguntzeko.

## Barañaingo 39 entitatek jaso dute Bai Euskarari Ziurtagiria

Martxoan, hamaseigarren urtez, Barañaingo 39 entitatek euskararen alde emandako urratsak aitortzeko ziurtagiriak banatu ziren. Barañaingo alkatea den Oihane Indakoetxeak eta, Rober Gutiérrezek, Bai Euskarari Elkarteko zuzendariak eman zituzten bereizgarriak. Biek nabarmendu zituzten entitateen lan eredugarria eta horien borondateari eta konpromisoari esker herrian lortutakoa.

## 13 urteko elkarlana Bai Euskarari Elkaratearen eta Zarauzko Udalaren artean

Zarauzko udalbatza aretoan ospatu zuten azaroaren 30ean Bai Euskarari Ziurtagiriaren hitzarmena sinatzeko

ekitaldia; bertan parte hartu zuten Zarauzko alkatea den Xabier Txurrukak, Nekane Iribar euskara zinegotziak eta Bai Euskarari Elkaratearen zuzendariak. Zarautzen 32 establezimenduk dute Ziurtagiria, eta orain dela 13 urte abiatu zen Zarauzko Udalaren eta Bai Euskarari Elkaratearen arteko elkarlana.

## "Entitate bat modu egokian kudeatzeko ezinbestekoa da hizkuntzaren aldagaia aintzat hartzea"

Horrela nabarmendu zuten Bai Euskarari Elkarteko ordezkariak, Gernika-Lumon ospaturiko Ziurtagiriaren banaketa-ekitaldian, 22 enpresa, saltoki eta entitatearen euskara maila aitortzeko. Hamaikagarren urtea da ekitaldia antolatzen dela Gernika-Lumoko Euskara saila, Busturialdean Euskaraz Bizi elkar-atea, Gernikako AEK, Artez Euskara Zerbitzua eta Seber Altube Ikastolarekin elkarlanean.

KONPROMISOA

KOMUNITATEA

ERALDAKETA

GERTUTASUNA

HOBEKUNTZA

KONFIANTZA

**Zorionak!**

AITZINDARITZA

**Euskaraz, irabazi.**

GARAPENA

**2019**

BERRIKUNTZA

**Urte berri on!**

SINESGARRITASUNA



[baieuskarari.eus](http://baieuskarari.eus)



**Ziurtagiri bat baino askoz gehiago**

**ALOR SOZIOEKONOMIKOAN EUSKARAREN ERABILERA ERRAZTEKO PROIEKTUAK, TRESNAK ETA BALIABIDEAK**



Bai Euskarari Ziurtagiria



Enpresarean



Lansarean lan-ataria eta App



#BaiPraktikaEgokia



Auto-Diagnostikoa



Baliabideak



Diru-laguntzak



Bai Euskarari komunitatea



Lanabes Araban Euskara Lanean



Lazarraga Sariak



Lehen Hitza EUS HANDIA DU



+